

## 19

### **BENETAKO, OHIKO**

*Orotariko Euskal Hiztegian benetan* sarreran ikus daitekeenez, benetako izenlaguna bizkaierazko eta gipuzkerazko literatura tradizioetan, 1800. urteaz gero asko erabili den esapidea da. Han bertan ikus daitekeenez, *benetako* da tradizioko idazle guztiek erabili izan duten forma. Azken urte hauetan hainbat testutan agertzen den *benetazko* aldaerak ez du alde horretatik inongo euskarririk. Bestalde, eramoldearen aldetik ere badirudi, *benetan*-en izenlaguna denez gero, *benetako* dela dagokion forma. Hortaz, *egiazko*-ren kutsutik edo sortu bide den *benetazko*-k ez du, antza denez, inongo alde onik euskara baturako gomendatua izan dadin.

*Ohi* partikularen izenlagunari dagokionez, lehen agerraldiak 1627koak dira, Etxeberri Ziburukoarenak, *ohiko* forman:

*Illea ere latzten zaio, lilluratzen begiak,  
Ohiko ere galtzen du kolorea bisaiaik* (MD I 43).

Harrezkero, hori da gaurdaino Iparraldeko testuetan salbuespenik gabe (Goyhetcheren *ohizko* bat izan ezik), agertzen den forma. Hegoaldean hitza gutxi erabiltzen da tradizioan, baina 1968 baino lehenagoko adibideak (*jan-edan*-eko bertsoak, Orixe, Zaitegi, K. Mitxelena, Txillardegi) *ohi*-korenak dira. Azken hoge urteotan, aldiz, *ohizko*, analogikoa da Hegoaldean nagusitu den aldaera.

**Beraz, hau da Euskaltzaindiak erabakitzen duena: idatz dadila euskara batuan *benetako* (eta ez *benetazko*). *Ohiko/ohizko* bikoteari dagokionez, Euskaltzaindiak, inolako aukerarik egin gabe, gogorarazi nahi du *ohiko* dela tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean gaur bizi den forma bakarra.**

(Euskaltzaindiak, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua)